

OHARRA

Koronabirusaren aurrean, prebentzio neurriak hartuko ditu udalak

Covid-19 birusaren (Koronabirus) aurrean, prebentzio neurriak adostu ditu Oñatiko Udalak. Besteak beste, bihartik aurrera, itxita egongo dira zenbait eraikin publiko eta ohiko zenbait zerbitzu ez dira erabilgarri egongo. Hain zuzen ere, honako hauek dira itxita egongo diren egoitzak: Gaztelekua -Topalekua, Sotoa eta Kuboa-, Txaloka Udal Ludoteka, Zubikoako kiroldegia, Eltziako kirol gunea, Azkoagain futbol zelaia, Larrañako kirol gunea, kultura etxea, Santa Ana antzokia, Euskaltegia –telematikoki eskainiko dira klaseak- eta Euskaldun Berria gela. Horrenbestez, bertan behera geratu edo atzeratu egingo dira aipaturiko egoitzetan datozen egunetan egitekoak ziren ekintzak, ikastaroak... Ostera, behinik behin, mantendu egingo dira Herritarren Arreta Zerbitzua eta Gizarte Zerbitzuak. Gainerakoan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saisetiko egindako gomendioak errespetatzeko deia egin du Oñatiko Udalak, hala nola, jendetza batu dezaketen ekitaldiak edota espazioak saihestea; berehala egitekoak ez diren tramiteak atzeratzea; edota, ahal den neurrian, tramiteak egiteko bide telematikoak erabiltzea. Bada, gaur-gaurkoz, eratua dago jarraipen batzordea, egoeraren unean uneko jarraipena egiteko eta hartu beharreko neurriak adosteko. Gaiari loturiko erabaki, gomendio... berririk balego, berehala jakinaraziko genuke.